

Abenduaren 15eko 106E/2023 Ebazpena, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko Zuzendari Kudeatzailearena, zeinaren bidez "Irabazi-asmorik gabeko entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera eta presentzia sustatzen dituzten hizkuntza planak eta ekintza solteak prestatu/ezartzeko eta eduki digitalak egokitzeko laguntzak 2023. urterako" dirulaguntza deialdiaren ordainketa ebazten baita.

ERREFERENTZIA: **Espediente kodea: 0011-4410-2023-000000**

UNITATE KUDEATZAILEA: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua
Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskararen Sustapenaren Atala
Tel.: 848 426054
Helbidea: Paulino Caballero kalea 13, 31002, Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Laguntzak, irabazi-asmorik gabeko entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera eta presentzia sustatzen dituzten hizkuntza planak eta ekintza solteak prestatu/ezartzeko eta eduki digitalak egokitzeko

Herritarrekiko Harremanetako sailburuaren otsailaren 21eko 13E/2023 Foru Aginduaren bidez, 2023an irabazi-asmorik gabeko entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera eta presentzia sustatzen dituzten hizkuntza planak eta ekintza solteak prestatu/ezartzeko eta eduki digitalak egokitzeko laguntzen deialdia onartu zen.

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak, ekainaren 7ko 38E/2023 Ebazpenaren bidez, dirulaguntza deialdia ebatzi zuen.

Zerbitzu kudeatzaileak behar diren jarduerak egin ditu dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren helburuak betetzen direla egiaztatzeko, bai eta dirulaguntza jasotzeko eskubidea ematen duten baldintzak eta aurkeztutako dokumentuen baliozkotasuna egiaztatzeko ere.

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena aurkeztu du laguntza horiek emateko.

Azaldutakoagatik eta Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua Erakunde Autonomoaren estatutuak onartzen dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearekin bat etorritz, honako hau;



EBATZI DUT:

1. Eskatutako laguntzak esleitzea taula honetan jasotako onuradunei:

Esp. zenbakia	IFZ	Izena	Aurrekontu partida	Urtea	Kopurua
0011-4410-2023-000001	G71404024	HAZIALDEKO	G/B30002/B3200 /4819/334113	2023	4.748,13
0011-4410-2023-000001	G71404024	HAZIALDEKO	G/B30002/B3200 /7819/334103	2023	1.107,69
0011-4410-2023-000004	G31041528	ASOCIACION INSTITUCION OBERENA	G/B30002/B3200 /7819/334103	2023	1.033,85
0011-4410-2023-000005	G31156920	ESCUELA NAVARRA DE TEATRO EL COLECTIVO	G/B30002/B3200 /7819/334103	2023	1.366,15
0011-4410-2023-000006	G83496000	FUNDACION KOINEAEQUALITAS PARA LA CALIDAD Y DESARROLLO SOCIAL	G/B30002/B3200 /4819/334113	2023	1.250,00
0011-4410-2023-000008	G31137482	FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES OBRERAS SINDICALES-LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK	G/B30002/B3200 /4819/334113	2023	32.975,11
0011-4410-2023-000010	G31715899	FUNDACION CLUB ATLETICO OSASUNA	G/B30002/B3200 /4819/334113	2023	49.276,76
0011-4410-2023-000011	G31560527	ASOCIACION LUDOPATAS DE NAVARRA ARALAR	G/B30002/B3200 /7819/334103	2023	1.236,93

2. Bertan adierazten diren kopuruak askatzea, honako xehetasun hauen arabera:

Esp. zenbakia	IFZ	Izena	Aurrekontu partida	Urtea	Kopurua
0011-4410-2023-000001	G71404024	HAZIALDEKO	G/B30002/B3200 /4819/334113	2023	46,77
0011-4410-2023-000006	G83496000	FUNDACION KOINEAEQUALITAS PARA LA CALIDAD Y DESARROLLO SOCIAL	G/B30002/B3200 /4819/334113	2023	1.750,00



3. Ebazpen hau eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio.
4. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruña, 2023ko abenduak 15

EUSKARABIDEA – EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Javier Arakama Urtiaga





CSV: **2BF5EE39E91B9610**

Pág.: 4/4

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Bēnetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:

<https://administracionelectronica.navarra.es/validarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2023-12-15 11:23:03